

URDAIBAI ¹⁰urte

2024
zenb.º 39
.....

© MAGAZINE



ESKOLA TXIKIAK, HEZKUNTZA MAIUSKULAZ

| GAUTEGIZ ARTEAGA, MAREEN INDARRA

| ALKARRIZKETA, ROSA REMENTERÍA DEL
VILLAR NIRE *ESKOLA FAMILIA HANDI BAT DA*

| BERMEON ONDOEN GORDETAKO SEKRETUA

| PEPI URDAITEGIA, 30 URTEKO ARIMA
EKINTZAILEA

| ARTEAN, ENRIKE ZUBIA

| LURKOI BASERRIA, EKOLOGIA,
BIZIMODU LEZ

K

**Pentsatu
zer etorkizun
nahi duzun.
Benetan.**

Ez da aurreztea aurreztegatik, Baskepensiones baizik.

Betidanik, liderrak izan gara
etorkizunerako aurrezki-planetan.
Pertsonalizatuta daude eta onura
fiskalak dituzte.

BASKEPENSIONES bgae

Kutxabank SA Bazkide sustatzailea. Kutxabank Gestion IKESK SAU Ondare Kudeatzailea.

Kutxabank, SA. Kale Nagusia, 30-32, 48009 Bilbo. IFZ: A95653077. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatuta. 5226 Tomoa, 0 Liburua, BI-58729 Orria, 1 Folia, 1. Inskripzioa.



BUKLETIK IRTETEA

Hamar urte baino gehiago daramagu helburu bardinakaz bai-
na bide komun batean bat egiten ez daben borondateen arro
batean denbora eskaintzen, energia kontsumitzen eta bat da-
tozen eta askotan paraleloak diran ideia eta proposamen des-
bardinak isurtzen. Eragile publiko eta pribatuen belaunaldiak,
eragile sozialak, kulturalak, ingurumenekoak, turistikoak...
Busturialdea-Urdaibain garapen-estrategiak eta -ekintzak
planteatzeko eztabaidetan eta partaidetza-prozesuak mar-
txan jarri eta hauetan parte hartu dabe.

Gure ekonomiak eta ingurumenak aurrez aurre jartzen dauzen
gurpil zorotik irtetea da gakoa. Alde askoko ikuspegia erabili
behar dogu, iraunkortasuna lehenesten daben strategieta-
tik abiatuta, eta ekonomia zirkular baten esparruan materialak
erabili eta berrerabiliko dabezen eta hondakinak minimizatuko
dabezen ekintzak eta proiektuak praktikan jartzen aurrera egin
behar dogu.

Arazoa teoriatik praktikara pasatzea da, aurreretiak ezeztu
eta aurrerapenak gidatzea, alkarri begi-bazterretik begira-
tu barik. Geure kontzientzia indibidual eta kolektiborako deia
egin behar dogu, funtsezkoa dalako personak, euren konpro-
misoa eta inplikazioa kontuan izatea. Busturialdea-Urdaibain
behar dogun hazkunde inklusibo eta iraunkorra bultzatzeko,
basogintza- eta nekazaritza-praktika birsortzaileak ezarri be-
har dira, bertako industria babestu, lurzoru industriala eskura
jarri eta industria barritzaile ez-kutsatzailea erakarri, bertoko
zerbitzuak, merkataritza, turismo jasangarria eta eskolak sus-
tatu, geure kultura dinamizatu eta aberastu, eta burua zabalik
geure nortasuna indartu. Osagai horreek eta beste asko beha-
rrezkoak dira geure bizi-ekosistemak bizirik iraun daian.



ARGITARATZAILE

NUEVA EUROPA S.L
Carlos Gangóiti, 15, behea
Gernika-Lumo (Bizkaia)
nuevaeuropa@nuevaeuropa.eus
www.nuevaeuropa.eus

HARPIDETZA

Aldizkaria jaso nahi badozu, gugaz harremanetan jarri hemen:
urdaibaimagazine@nuevaeuropa.eus
tel.: 94 625 06 06
www.urdaibaimagazine.eus

URDAIBAI MAGAZINE NUEVA EUROPA S.M-REN LANTALDEAK BURUTU DAU

Urdaibai Magazinek ez dauz bere gain hartzen hirugarrenek
emondako eritxiak edo egindako komentarioak.

Azaleko argazkia Freepik-etik hartua da.

LEGE GORDAILUA: BI-153-2015

Aldizkari honek **Bizkaiko Foru Aldundiaren** laguntza jaso dau.

PUBLIKAZIOA: 2024. 11.07



AURKIBIDE



04



18




20



28



34



30

04 ERREPORTAJEA. Eskola txikiak, hezkuntza maiuskulaz

11 DANONARTEAN.

18 VISIT URDAIBAI. Gautebiz Arteaga

20 ALKARRIZKETA. Rosa Rementeria del Villar, Ross Dantza Eskola

25 KOLABORAZINOA. Juan Carlos López Quintana, Arkeologoa

26 LEKUKO. Bermeon ondoen gordetako sekretua

28 KALERIK KALE. Pepi Urdaitegia

30 ARTEAN. Enrike Zubia

34 SALTSA PORRU. Berakatzak

36 BERDEAN. Lurkoi baserria

40 LABUR LABUR.

Eskola txikiak,

HEZKUNTZA MAIUSKULAZ

Gure seme-alaben eskolatzeari buruz berba egiten dogunean, prestakuntzarik onena bilatzen dogu, ikastetxe handietan pentsatzeko joera daukogu. Halanda be, frogatuta dago eskola txikietan oinarri sendoak sortzen dirala letra larriz hezteko. Busturialdeko eskola txikiak bizirik diraute, gure herrietako bizitzarako ezinbesteko oinarri izanez.



Montorre Eskola (Gautegiz Arteaga)

Aurtongo ikasturtean, 2 eta 11 urte bitarteko 430 neska-mutiek ikasten dabe geure eskualdeko 5 eskola txikietako batean, Haizeder Eskolan (Natxitua-Ea) Montorre Eskola (Gautegiz Arteaga), Jose M. Uzelai Eskolan (Busturia), Mundaka Eskolan eta Urretxindorra Herri Eskolan (Muxika). Guztiak eskola txiki moduan identifikatzen dira, nahiz eta batzuk besteak baino "txikiagoak" izan. Eskola Txikien egungo definizioari erreparatu, Euskadiko Eskola Txikien Sareak horrela jasotzen dau: "adin aniztasuna bultzatzen daben tamaina txikiko eskola publikoak dira, landa eremuan kokatuta dagoz, eta hiru ezaugarri horrengaitik lan ona egiteko aukera ugari eta askotarikoak daukeez".

"Guztion eskola", "aniztasuna aberastasuna da", "ikasle guztiak irakasleenak dira", "herriari begira dagozen herri-eskolak", printzipioak eskualdeko bost ikastetxe horreek partekatzen dabez, eta Busturia, Mundaka eta Muxikakoak, Eskola Txikien Saretik kanpo geratu arren, ikasle kopurua gehitu dabeelako, guztiak sentitzen dira eskola txiki, funtsean. Eskola Txikien Sareko kide izateko baldintza batzuk bete behar dira, eskolan sei unidade (talde) baino gutxiago izatea, herriko eskola publiko bakarra izatea, euskalduna eta herrian integratua egotea. Eskualdean, Gautegiz Arteagako Montorre Eskolak eta Natxituko Haizeder

Eskolak soilik betetzen dabez baldintza horreek % 100ean. "Geure burua eskola txikia modura hartzen dogu. Lehen 100 ikasleetik behera zeudenean bai zan eskola txikia. Eskola txikien izaera hori ez daukagu baina beste batzuk bai...herrian bertan egotea, hurbiltasuna. Familia baten modukoa da eskola. Hemen ume danak ezagutzen doguz", aitortzen dau Mundaka Eskolako zuzendari Maite Madariaga Petrinak. Muxikako Urretxindorra eskola be eskola txikia sentitzen da, nahiz eta aurton 8 unidade edo talde izateagaitik saretik kanpo

Gizarteak adin-nahasketaren onurekiko daukon errezeloaren aurrean, eskola txikiak, desbardintasunek ekarten dabezen onurak ondo ezagutzen dabez eta zerbait positibo eta aberasgarri lez defendatzen dabe

geratu: "talde kopuruagaitik kanpoan geratu gara, baina beste baldintza guztiak betetzen doguz. Gu eskola txikitat hartzen dogu geure burua", azaldu dau Beto Carbó Dominguez Urretxindorrako zuzendariak.

KMO IRAKASKUNTZA

Busturialdeko eskola txikiak beren esentzian bat datoz baina euren indarguneean be: hurbiltasuna, adin nahasketa, hezkuntza personalizatua, eremu naturala eta familia giroa. "Oso familiarra da eskola, hemen ume danak ezagutzen doguz. Gainera umeak bakarrik etorri ahal dira eskolara oinez, komunitatearen parte handia gara", azaltzen dabe Mundaka Eskolatik; "Heritik hurbil gagoz, jendeagaz hurbil-

tsuna daukogu. Beti daukoguz atearik zabalik", azaltzen dabe Busturiako J.M. Uzelai eskolatik; "Guztiok zaintzen dogu alkar", nabarmentzen dau Alain Ajuriagojeaskoa Garmendiak, Gautegiz Arteagako Montorre Eskolako zuzendariak; "Txikitasunean familiekaz gertutasun handiagoa dago, alkarezagutza be. Danok ezagutzen doguz ikasle guztiak eta ikasle guztiak ezagutzen gaituzte gu. Ikasle danak dira danonak", aipatzen dabe Muxikako Urretxindorra Eskolakoek. "Landa eremuan egoteak emoten dau joko handia ta familien eta herrikeriko hurbiltasuna da nagusi. Gainera, adin nahasketak aberastasun handia emoten dau. Alkarrerari erakustea, zainketa hori, adaptazioan asko laguntzen dau, adibidez. Giro sana sortzen da. Gure gizartea adin nahasketa handi bat da eta guk gizarterako prestatzen doguz", azaltzen dau Arnaitz Aboitizek, Natxituko Haizeder Eskolako ikasketaburuak.

Gizarteak adin-nahasketaren onurekiko daukon errezeloaren aurrean, eskola txikiak, desbardintasunek ekarten dabezen onurak ondo ezagutzen dabez eta zerbait positibo eta aberasgarri lez defendatzen dabe. Esperientziak erakutsi dau ikaskuntza-prozesurako oso aberatsa dala gela berean adin desbardineko umeak izatea. Horrengaitik, hainbat zentro handi, Gernika-Lumoko Allende Salazar Herri Ikastetxea kasu, adinen nahasketan oinarritutako sistemez baliatu dira, esaterako Amara Berri¹. "Gu Amara Berri sisteman gagoz eta bere printzipio bat da adin nahasketa. Zikloka dagoz nahastuta. Oso polita da bata besteagaz elikatzen direlako ikasleak. Autonomia lantzen da. Guztiz onuragarria da. Bakoitzak bere

>>>

eskola-bisitak

Ezagutu geure Historia eta Ondarea

Egizuz ikasturteko txangoak
Visit Urdaibaigaz



Visit Urdaibai
© bai Nueva Europa



www.visiturdaibai.com
634 243 762 visiturdaibai



Busturialdeko Eskola Txikien jaia

Herri txiki baten eskola bat galtzea katastrofe bat da!

tzitsuak direla sentitzen dabela, eskolak herriko bizitzan parte hartzen dauelako; baserria edo auzotarren ortuak ikerketa-zentro bat izan daitezke eta herriko barriak eskolako gai lez erabil daitezke. "Hartu emon estua daukagu udaletxeagaz, herriko ekoizleekaz...Eskolako ume guztiak dira Bird Centerreko bazkideak. Eranstuketak eta abar egiten dabez umeez. Azterkostan be padurara goaz uraren medizinoak egiten...Udaletxeak ordaintzen dau goizeko harrera zerbitzua, doakoa dana familientzako. Udaletxeak apostua egiten badau eta herriko jendeak apostua egiten badau eskola txiki bat egoteko, zabalik jarraituko dau. Herri txiki baten eskola bat galtzea katastrofe bat da!", onartzen dau Alain Ajuriagojeaskeak Montorre Eskolatik.

Herriko idiosinkrasia bereziaz jabetuta (30 auzo baino gehiago, 50 km²-tan sakabatuak), eskualdeko udalerririk zabalen da, Muxikako Urretxindorra Eskolak alkarrekiko ezagutza eta herri-kontzientzia eskaintzen dauen eta eskolako neska-mutilek herriaren parte direla senti daiezan laguntzen dauen proiektu bat garatu dau. "Alkarren ezagutzak dakar alkarren errespetua. "Herri Hezitzaile" ize-

neko proiektuaren helburu nagusia da hezkuntza komunitatearen partaidetza erraztea eskolan. Beste helburu bat da herri kohesioa lantzea. Horretarako Batzorde bat eratu dogu guraso eta irakasleekaz. Irakasleok planteatzen deutsegu zeintzuk diran landu gura doguzen gai nagusiak eta herritarrek datoz eskolara euren eskaintzak egiten. Adibidez, ura landu genduan Urpekaritzan Euskadiko Txapelduna izandako Muxikako aita bat etor zan bere esperientzia kontatzera... Urretxindorren iloba ta birloba be etorri dira azaltzen umeei nor izan zan Urretxindorra...", ilusinoz azaldu dabe Urretxindorrik.

Gurasoen parte-hartzea oso garrantzitsua da geure herrietako eskola txikietan. Alkar ezagutzea lortzeko asmoz, Haizeder Eskolako guraso talde batek "Kultur Hurbilketa" proiektua planteatu eban. Proiektu horren bidez, umeentzako jarduera bat antolatzen dabe hilero, esaterako baserri sagarrak batzera joatea edo ondoko herriko erlezainaren bisita. Gainera, zentro honetara hiru udalerritako (Elantxobe, Ibarrangelu eta Ea) neska-mutilak doaz, eta funtsezkoa da herri bakoitza ezagutzea. "Saiatzen gara hiru herrietan hazi apurtxu bat gehitzen. Eara egiten dogu >>>

bidea egiten dau, gela bardinean egon arren.", azaltzen dabe Maite Madariaga eta Anai Gezuraga, Mundakako Eskolako zuzendaria eta idazkaria, hurrenez hurren. "Nahiz eta zikloka ez egon nahastuta, guk bai nahastu egiten doguz tailerretan, etabarretan. Laguntzaile papera hartzen dabe nagusienak eta hurrengoan bera izango da txikia ta berak jasoko dau laguntza. Oso inportantea da besteengandik ikastea eta lan egitea zure maila ez daukon beste bategaz", nabarmetzen dabe Muxikako Urretxindorra Eskolatik, Olaia Laka Zaballa eta Beto Carbó Dominguez, ikasketa burua eta Zuzendaria, hurrenez hurren. "Arlorik zailena matematika izaten da, ze matematikan eskatzen diran helburuak 3. mailan ta 4.mailan desbardinak dira. Horretarako, desdobleak egiten doguz. Galduez da egiten, irabazi egiten da", azaltzen dau Abel Aguirrek, Busturiako J.M. Uzelai eskolako zuzendariak.

rako, adin-nahasketa funtsezkoa da, eta %100ean onuragarria: "Zaharrenak erakusten deutso txikienari eta horrela eurek be konsolidau egiten dabe euren jakintza. Autoestima be lantzen da. Oso aberasgarria da", nabarmetzen dau bere zuzendariak, Alain Ajuriagojeaskoa Garmendiak. "Autoregula egiten dabe. Bakoitzak bere maila topetan dau. Eskola handiak hasi dira adin nahasketa egiten. Lan karga bat suposazen dau hezitzaileentzako, ez dalako bardina gela saio baterako prestau edo bi prestau behar izatea, baina onura handia da. Norbanakotasun printzipioa lantzen da, bakoitzak behar dauena eskaini. Ume gitxi egonda gelan umearen gainean egon al zara", aipatzen dabe Arnaitz Aboitzek eta Alaitz Ajuriak Nabxituako Haizeder Eskolako ikasketa-buru eta zuzendaria, hurrenez hurren. Eskola horretan 75 ikasle dagoz.

'ESKOLA TXIKIAK, HERRI BIZIAK'

Eskola Txikien berezko beste ezaugarri bat da eskola herrian integratua dagoela eta haurrek komunitateko kide garran-

1 "Amara Berri": Euskadiko ikastetxeetan hedatutako ikaskuntza-sistema, proiektuaren erdian haurra dagoela, bere garapen globala eta harmonikoa. Bere nortasunaren edo harreman sozialen garapena kontuan hartzen dau, haur hezkuntzatik lehen hezkuntzaren amaierara arte. Jolasaren eta imitazioaren bidez hazten laguntzen saiatzen da. Beste metodologia batzuen artean, adin nahasketako ziklo programekaz lan egiten da. Bizkaian Allende Salazar Ikastetxeak (Gernika-Lumo), Etorkezuna Ikastolak (Abanto-Zierbana), Landako Eskolak (Durango), Larrea Eskolak (Amorebieta-Etxano), Mundaka Eskolak, San Frantzisko Herri Ikastetxeak (Bermeo) eta Zelaieta Herri Eskolak (Abadiño) aplikatzen dabe sistema hau.



Adin desbardinetakoa ikasleak batera ikasten

txangoa, Ibarrangelura bajatzen gara San Isidro eguneko azokara, Elantxobera oinez bajatzen gara Arraun Elkartera... Igaz hiru herrien turismo gida bat egin ebeen ikasleek euren artean ezagutzeko. Gurasoak be prest dagoz laguntzeko beti ta alkar-lana be badago. Batez be, herri kultura ta lotura hori sendotzeko. Gainera, hemen kanpo espazioa beste hezitzaile bat da, beste irakasle bat da. Eskola hau ez da lau ormetako eskola bat. Ingurune naturalak emoten deuskuz aukera gehiago. Gym Berdea proiektua be badaukagu, umeak ortura doaz, arnasketak egiten dabez eta ortuan lan egiten dabe, gero eurek be sukaldetan prestatzen dabe ortutik hartutakoa", azaltzen dabe Natxutuko Haizeder Eskolakoek.

ESKOLA TXIKIAK, ERRONKA HANDIAK

Jaiotza-tasaren etenbako jaitzierak ikas-tetxe guztiei eragiten deutse. Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailak bost ikas-turtetan zehar (2018/2019-2023/2024) emondako datu estadistikoek adierazten dabenez, Euskal Autonomia Erkidegoan 16.916 ikasle gutxiago matrikulau dira haur-hezkuntzan eta 10.336 gutxiago lehen hezkuntzan. Eskola txikien biziraupena kolokan jartzen dau honek. Halanda be, badira arauaz kanpoko salbuespenak, esaterako Natxutuko Haizeder Eskola, 2023/2024 ikasturtean 12 matrikulazio izan dauzelako, eta hori salbuespenezkotzat jotzen dabe: "Ez da errealidadea. Aurton horrela izan da, neba-arreba asko dagoz eta". Ikasle kopuruaren eta eskolaren beharizanen hazkundearen ondorioz "Eskola goitik behera bota egingo da, txiki geratu jaku. Lehen Haur Hezkuntzako eskola zan ta bost urteko gela amaituta umeak lehenengo mailara pasateko Barrutira joan behar ziran. Guraso alkarteak indarra egin eban eta LHko etapa sortzea

lortu eban. Bi ikasturteetarako joango gara Ibarrangeluko kultur etxera (antxinako eskolen eraikina). Ibarrangeluko herriak egin dau esfortzu handia, gu eskertuta", azaltzen dabe Haizederretik.

Muxikan be oraingoz lasai dagoz matrikulazio kopuru egonkorragaz, baina zailantza barik, bizirik irautea etorkizuneko erronka handia da: "Muxikan gaur egun ez dakigu etxebizitza barrien planik dagoen ta hemendik eta urte batzutura bizirik irautea izan leike arazo bat. Guretzako erronka handia da herriari bizitasuna emotea ta familientzako bilgune bat izatea. Guretzako erronka handia da be muxikarrek Muxikan ikastea. Muxikako umeek Muxikan eskola bat daukatela jakitea, konturatzea ta estimatzea, herri kohesinoan lantzeko. Herriko umeak herriko eskolara joatea inportantea da herriar sentitzeko".

Mundaka Eskolan be ez dabe epe laburrera jarraitzeko arriskurik ikusten, baina matrikulazioak jaitsi egiten dirala onartzen dabe: "igartzen da jaiotza-tasa murrizten ari dala, zergaitik?, laguntzarik eta erraztasunik ez dagoelako, oso eroso bizitzea be gustatzen jakulako... eta gazteentzako etxebizitza barriak behar dira be". Bardin Busturian, "etorkizunari begira, ikusten dogu matrikulazioa gero eta gutxiagokoa dala eta hori nabaritzen hasi gara eskolan".

Gauegiz Arteagako Montorre Eskola bezalako eskola txikiengatik bere erronkak haratago doaz, bere burua entzunaraztea, agerian jartzea eta eskaintzen dauen guztia zein handia dan erakustea da bere erronka nagusietako bat: "erronka da guk egiten doguna erakustea. Pila bat gauza egiten doguz baina nukleo txikian geratzen da, gu ez gara Allende bezalako trantsatlantiko bat. Ta hortaz konziente izan da, aurton ipini dogu martxan web orri bat,

Jaiotza-tasaren etenbako jaitzierak eskola txikien biziraupena kolokan jartzen dau

www.montorre.net, ta hor ikusten dira eskolan zenbat gauza egiten diren ta ze politikak".

ZONIFIKAZINOA, DISTANTZIA GAIN-DITUEZINA?

Eskola txikien kezketako bat zonifikazioa da. Zenbait kasutan, Gauegiz Arteagako Montorre Eskolan, esaterako, Gauegiz Arteagara eta Kanalara mugatuta dago eremua, eta horrek esan gura dau Ereño udalerrri mugakideko familiek Barrutia lkastetxeraino eraman behar dabezela seme-alabak (8,6Km), Montorre Eskola gertuago egon arren (1Km).

"Mugatuta gagoz, gure eskola mapa zabaldu gura dogu. Kortezubi be ondoan daukagu ta Barrutia lkastetxea toketan jake. Udaletxetik egin da zonifikazioa aldatzeko eskakizuna Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailara", aldarrikatzen dabe Gauegiz Arteagako Montorre Eskolatik.

Busturiako J.M. Uzelai eskolan gauza bera gertatzen da, Murueta 2 kilometro eskasera dagoela. "Murueta 2 umeak doaz Gerrika-Lumoko Allendera. Muruetatik geure eskolara datozen umeek ez dauke ez autobus zerbitzurik ez laguntzarik, geure zonifikaziotik kanpo dagoelako. Eskatu dogu askotan aldatzeko baina administratibotik ezetza daukagu", aipatzen dabe Busturiako J.M. Uzelaitik.



Montorre Eskolako ikasleak Gauegiz Arteagako paduran

Eako Haizeder Eskolan zonifikazioa handitu egin da eta, horri esker, herri mugakideei zerbitzua emon ahal izan deutsee. "Orain dala 5-6 urte lortu zan zonifikazio hau. Lehen hau zan bakarrik Eako eskola. Lortu zanetik zonifikazioa Elantxobe ta Ibarrangelutik autobusean datoz ikasleak, Natxutukoak bakarrik datoz oinez. Zonifikazioa lortzeko eskolak borrokau eban asko", azaltzen dabe Haizederretikoek.

Zonifikazioa erronka bat da, baina ez bakarra. Busturialdeko eskola txikiak euren lekua eskatzen dabe hezkuntza munduan eta urteroko hitzordua ospatzen dabe gure herrietako eskolak sendotzeko, aldarrikatzeke, eta bizikidetzari eta kalidadezko

Aldarrikatzen dogu eskola txikiak bizirik gagozela. Eskola txikiak ahal direla aurrera atara. Sinestu aurrera joateko

ikaskuntzari egiten deutsoen ekarpena indartzeko, Busturialdeko Eskola Txikien Jaia. "Aldarrikatu gura doguna da eskolaren inportantzia herrietan. Herriak bizirik izateko eskolak bizirik irau behar dau. Aldarrikatzen dogu eskola txikiak bizirik

gagozela. Eskola txikiak ahal direla aurrera atara. Sinestu aurrera joateko." **UM**

Gaur egun, eskola txikien barruan 54 eskola dagoz: 7 Araban, 21 Bizkaian eta 26 Gipuzkoan.



Ezagutu Gauegiz Arteaga
pausoz pauso







AROTZ
Egurraren ibilbide turistikoa
Ruta turística de la madera



Gertuen dozun parlamentua

Tu parlamento más cercano



Gernika



Abellaneda



Gerediaga



Bilbao

BIZKAIKO BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

www.jjggbizkaia.eus

TOURDAIBAI

Urdaibaiko turismo
jasangarrirako elkarte

Tourdaibai
Urdaibaiko turismo jasangarrirako elkarte

ETORKIZUNAK
BATZEN GAITU
* Nos une el futuro



PUBLIERREPORTAJEA



AJANGIZKO

UDALA

UDALETXEKO TEILATUAN EGUZKI INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK GARATZEKO PROIEKTUA

Ajangizko udaletxeako teilatuan eguzki plakak udal eraikinei energi garbia emateko jarriko dira. Teilatua berritu denez baldintza onak ematen dira eguzki plakak jartzeko.

27 Kwko potentzia instalatuko genuen. Kontsumo portzentaien arabera banaketa hurrengoa litzateke: Udaletxea % 11, Udal Biltegia % 1, Kultur etxea % 15, Frontoia % 4, Lurgozoko lonja % 10 eta Herriko Taberna % 59. Bestetik sortzen den energia osoa kontsumituko ez denez soberakina udaleko argindar sarera injektatuko litzateke, udaletxeak duen argindar faktura murriztuz. Instalazio honekin, argindar horniduraren gastua urteko 5.855,36€ gutxituko litzateke, kontsumoan 35.488,84€ eta CO2 isuriak 7141 Kgr.

Instalazio honen aurrekontua 42.941,50 euro izango litzateke (35.488,84€ + %21 BEZ 7.452,66€). Lortutako dirulaguntza osoa 24.062,50 euro dira. Europatik dator New Generationen bitartez. Instalazio lanak zuzendu eta esleipen prozeduran laguntza tekniko Barrizar enpresak burutuko du.

Obraren lizitazioa prestatzen gabiltza eta laster batean aterako dugu.



ARRATZUKO

UDALA

UREZTATZEKO LURPEKO URAREN BILA

Arratzuko Udalak, URaren (Uraren Euskal Agentzia) eta Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntzagaz, herriko lur-azpian akuiferoak aurkitzeko zundaketak hasi dauz. Helburua da ur-hornidurako alternatibak aurkitzea herriko ekoizleen ureztatze-beharrak asetzeko, batez be kiwi-landaketak mantentzeko. Kiwia Arratzuko espezialidadeetako bat da, txakolinaren ekoizpenagaz eta ortu tradizionalagaz batera. Horretarako, lurpeko urak esplorau, balorau eta ustiatzen aditua dan enpresa baten zerbitzuak kontratau dira. Dagoneko Loiola auzoan ari da lanean. Bertan, harri bolkanikoen azaleratzeari buruzko ezagutza geologikoa lurpeko akuifero bat egon daitekeela adierazten dauen seinale da. Zundaketen emaitza positiboa bada, ekipau eta kudeaketa sistematizau egingo da, ureztatze ura izan ahal izateko, ibai-emari ekologikoa arriskuan jarri barik. Ur-emari horrek udan arrisku handiagoa jasaten dau.



BUSTURIKO

UDALA

PARRALAK BERRESKURATZEKO PROIEKTUA

Busturiako Udala herriko-parralak berreskuratzeko proiektu batean murgilduta dago, babestu eta balioetsi gura dauen altxor etnografiko eta historikoa. Lan horretarako, Udalak Eusko Jaurlaritzagaz Tokiko Erakundeei zuzendutako 90.000€ko dirulaguntza kudeatu dau, "Busturiako parralak berreskurapena" izenburupean. Euskal Herriko Unibersidadeko eta Aranzadi Zientzia Alkarteko bi adituk egin dabe hasierako fasean dagoen proiektu hau. 2025. urtearen hasieran hasiko da landa-lana, udalerriko parral guztien inbentarioa eginez, bai eta parraleen konposizioarena eta biodibersidadearen babesle lez betetzen daben funtzioarena be. Proiektuak, beste ekintza batzuen artean, parralen jabeentzako liburu bat egitea aurreikusuten dau, mahatsaren kulturari lotutako azpiegitura hori konserbatzeko moduari buruzko informazioagaz, berrezko paisaia kulturala sortu dauena.



ERRIGOITIKO

UDALA

GABONETAKO KARTEL ETA ARGILEHIAKETA

Eguberri hauetan Errigoitik giro magiko eta atsegina izango dau, Gabonetako jaiak batera gozatzeko gonbidapena luzatuz. Udalak Gabonetako bi lehiaketa antolatu dauz, bata herrian argi giroa sortzeko eta bestea jaien programazinoa jasoteko kartel lehiaketa.

Udalak, leihoak, balkoiak, fatxadak edo lorategiak apainduz parte hartzera animatzen dauz herritarrek. Herriko kaleak alaitzeko ekimen bat da. Udalak argiztapen eraginkor eta jasangarriagaz erabiltzeko deia egiten dau, esaterako LED teknologiaz, eta geure tradizioak gogora ekarteko motibo eta objektu apaingarriak erabiltzea be. Gabonetako programazinoa agertzeko kartela aukeratzeko lehiaketagaz, herrian antolatzen diran ekitaldietan sormena eta herritarren parte-hartzea sustatu gura dau udalak. Parte hartzeko beharrezkoa izango da udaletxean izena emotea. Irabazleek Gabonetako saski bana eta eskudiruzko sari bat eskuratuko dabez.



FORUKO

UDALA

EUROPA MAILAKO INGURUMEN PROIEKTUA

Foruko herriak bere udal-politiketan aplikatzen dauen iraunkortasun-estrategia sustraitua eta sakona dauko. Ingurumenarekiko konpromiso horren ondorioz, udalak Europako iCOSHELLs ikerketa eta barrikuntza proiektuan parte hartu dau, lurraren osasuna hobetzean oinarrituta. *Basque Living Lab* taldean parte hartuko dau, eta forutarrek zeregin aktiboa eta funtsezkoa izango dabe personeren osasunean eragina daukeen lurzoru osasungarriari buruzko konzientiazioan. Proiektua lehen fasean dago eta 4 urteko iraupena izango dau. *Living Lab* laborategiak bertatik bertara esperimentatzen diran laborategi bizidunak dira, eta bertan hainbat eragilek hartzen dabe parte, esaterako gobernuak, industriak, unibersidadeak eta herritarrek. Europa mailako lurzoruaren proiektu honetan, Forutarrak izango dira herritarren zientzia ekimenaren parte, biosfera-erreserben inguruneetan lurraren osasuna hobetzeko.



GAUTEGIZ ARTEAGAKO

UDALA

KIROL AISIALDIRAKO GUNE BARRIA

Gautegiz Arteagako Udalak udalerriri aktibo bat sortu eta adin eta beharrian guztietako personentzako zerbitzuak izateko estrategiaz aurrera darrai. Ildo horretan, kirol-aisialdirako espazio barri bat prestau dau bizikletazaleentzat. Bizi-pista bat da, aire zabaleko bizikleta-zirkuitu bat, oztopo, eremu eta malda desbardinekaz, bi gurpilazaleek euren trebetasuna probatu daiezan. Horrela, kirola egiten daben bitartean ondo pasatzen dabe. Doako eta sarbide libreko zirkuitua da, edozein adinetako personei zuzendua. Autokarabanen aparkalekuaren ondoan dago. Instalazinoa behar bezala erabiltzeko eta erabiltzaileen segurtasuna bermatzeko, bizi-pistaren sarreran panel bat jarri da instalazinoa arautzen dauen araudiagaz. Besteak beste, bakarrik erabil daitezke bizikletak, eta kaskoa derrigorrezkoa da.



GERNIKA-LUMOKO

UDALA

LEHEN SEKTOREA ETA ARRAZA AUTOKTONOA SUSTZATZEA

Euskal Herriko Pirenaika arrazako Urriko Lehen Asteleheneko Azokaren ospakizuna herria lehen sektorearen erreferentzia eta euskal ustiattegietan gero eta pisu handiagoa daukon arrazaren erakusleho be bihurtzeko aukera apartekoa da. Azoka, Gernika-Lumoko Udalaren babesagaz, funtsezkoa da arraza autoktonoa sustatzeko, bai eta bere hobekuntza genetikoaren aurrerapenak ezagutzera emoteko be. Urriko Lehen Asteleheneko azokaren garrantziaren erakusgarri, honen barne Pirenaika Arrazako Lehiaketa, ustiategien parte-hartze zabala da, baita gero eta abeltzain gazte gehiagoren inplikazioa be. Aurton 37. edizioa egin da eta ekitaldia sektoreko garrantzitsuena da Euskadin, bete-betean hedatzen ari dan arraza autoktonoa sustatzeko.



IBARRANGELUKO

UDALA

ERAIKIN BARRIA GIMNASIORAKO

Ibarrangeluko bizilagunek udal gimnasioko instalazio berriz gozatu ahal izango dabe laster. Ibaeta auzoko egurrezko eraikin barria da. Eraikinak 126.000 euroko kostua izan dau, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 60.000 euroko dirulaguntzagaz eta EREINen (Eusko Jaurlaritza) beste 60.000 euroko dirulaguntzagaz ordaindu da. Eraikin barrira orain arte Kultur Etxeko areto batean erabiltzen ziran gimnasia makinak eramango dira eta pisuak be erosi dira. Gimnasia sarrera txartel elektronikoagaz egingo da, eta 5€ko kostua izango dau txartelak. Halanda be, gimnasioaren erabilera doakoa izango da Ibarrangelun erroldatutako personentzat. Bestalde, Ibarrangeluko Kultur Etxea Natxituko Haizeder eskolako umeak hartzeko egokitzen ari da. Eskolako barritze lanek irauten daben bitartean bertan egongo dira ikasleak. Bi urtez Kultur Etxeak bere ohiko zerbitzuak mantenduko dauz, aldi baterako eskola zerbitzua hartzeaz gain.



KORTEZUBIKO

UDALA

HAUR-PARKEA BARRITZEA, SEGURUAGOA ETA MODERNOAGOA

Herriko Plaza, udaletxea, frontoia, herriko taberna eta txokoa hartzen dauzen erdigunea, Kortezubiko bizilagunen topagune eta aisialdirako lekua da. Espazio horretan, umeek be euren jolaslekua dauke, haur-parkea. Gune ludiko hau seguru, eroso eta moderno mantentzen dala ziurtatzeko, udalak erabarritze garrantzitsu bat egin dau, jolas guztiak ordezkatzuz eta beheko kautxua aldatuz. Udalarentzat funtsezkoa da udal-instalazioak egoera onetan mantentzea, eta jarduera hau ingurune atsegina eta seguruak sortzeko strategiaren barruan kokatzen da, hauetaz disfrutau ahal izateko. Inbersinoa ordaintzeko, ia 40.000€koa (BEZ barik), landa-eremuak garatzeko EREINeko (Eusko Jaurlaritza) dirulaguntza bat kudeatu dau, eta horregaz aurrekontuaren zati handi bat ordaindu da, 19.199€.



MENDATAKO

UDALA

IA ENERGIA-KONTSUMOBAKO ERAIKINA

Mendatako Udalak Taberna Barri eraikina birmoldatuko dau. Taberna Barri herrian oso errotuta dago eta herriaren erdigunean dago. Aisialdiko eta gizarteko ekipamendu lez berreraikitze proiektuak energia aurrezteko neurririk zorrotzenak beteko dauz, diseinuko estrategia pasiboekaz, prestazio handiko isolamenduagaz, gama goreneko arotzeriagaz eta hermetikotasunagaz. Honela banatuko da: bi gune independenteetako beheko solairua, bata erabilera anitzekoa, atariagaz, bilera-gela, komunak, bildegia eta erakusketa-gelagaz, eta bigarrena, txokoa, sukaldea, jangela, komunak eta terrazagaz. Eraikinak erdisotoa be izango dau, eta bi sarbide independente izango dauz: bata txokoari lotuta egongo da, eta bestea udal-biltegiari. Herria dinamizatzeko udal-proiektu estrategikoa da hau eta 1.079.925€ko aurrekontua dauko eraikina zaharberritzeko proiektuak. Eraikina 1.020,66m²ko azalera izango dau guztira.



MURUETAKO
UDALA

BIDE-SEGURTASUNAREN ALDEKO NEURRIAK

Muruetako Udalak, arlo horretan eskumenak daukon Bizkaiko Foru Aldundiagaz lankidetzan, semaforo barri bat jarri dau Goierria auzoan, bide-segurtasuna eta herritarren irisgarritasuna hobetzeko. Semaforoak sakatzeko botoiagaz funtzionatzen dau, eta lehendik egoan oinezkoentzako zebra-bidean jarri da, Gernika-Lumo eta Bermeo lotzen dauzen errepidearen trafiko-bolumen handiaren aurreko neurri lez. Azken urteotan gora egin dauen auzoa da Goierria, eta bertan udal etxebizitza barriak eta tasatuak eraiki dira. Ondorioz, biztanle kopurua handitu egin da. Gainera, semaforo barritik 300 metrora Bizkaibusen lineako autobus geralekua dago, baita herriko neska-mutilak eskolara eramaten dauzen autobusarena be. Horregaitik guztiagaitik, Muruetako Udalak auzoaren segurtasuna sendotu gura izan dau, eta, horretarako, semaforo barria jartzea kudeatu dau.



Bizkaitik
Bizkai osora
informazioa zabaltzen
dauan euskarazko
irrátia



www.bizkaiairrátia.eus





Gautegiz Arteagako ikuspegia Muruetaganerako errepidetik

Gautegiz Arteaga

mareen indarra, artadiaren xarma

Gautegiz Arteagako paisaia apartekoez, dibersidade harriarriaz eta ondare historiko aberatsaz gozatzeko plan ezin hobea proposatzen deusugu orri hauetatik.

Zelai leunak padurekaz alkatzen dira itsasadarragaz topo egitean, kolore eta paisaien arteko amalgama ederra sortzeko. Arteak, gurbitzak eta gaztainondoak kanaletara begira dagoz, mareak zaintzen, ura ia bere adarrekaz ikutu arte. Imajina daitezkeen berdeen gama guztietako sinfonia batek kontraste harriarriko orografia bat estaltzen dau. Gautegiz Arteaga ingurune guragarri baten gainean zabaltzen da, eta paisaia aberasten eta hari zentzua emoten deutson ondare historiko-arkitektonikoa eskaintzen dau.

Geure bisita Herriko Plazan hasten da, Zelaieta auzoan, eta bertatik errepedea igaroko dogu Zelaieder parkera iritsi arte. Berdegune hau oso zabala eta kalidazkoa da. Hemen aurkituko doguz Gautegiz Arteagako ibilbide osasuntsua jarraitzeko argibideak (planoa eta markak).

Ozollo auzorako bidean, Arteagako Gazteluaren silueta lirain eta dotorea izango dogu aurrean, Frantziako enperatrizak, Napoleon III.aren emazte eta Arteagatarren leinuaren ondorengo Eugenia de Montijok, Louis Auguste Couvrefchef Gune

Inperialetako arkitekto frantsesari enkarगततुतुakoa.

Gaztelutik, bideak zelai lasaiak zeharkatzen dauz, itsasadarraren gaineko bista ikusgarriekaz. Bidean, ehun urterko baserriak aurkituko doguz, esaterako Ozollokoa, eta auzo berean, Gautegiz Arteagan zutunik mantentzen dan mare-errota bakarra. Errota hau bere indar eragilea sortzeko ziklo naturalak aprobetxatzen ebazan jarduera baten lekuko da. Isla Bekoan, San Lorentzo basiliza zaharra ezkerretara utzi, hondartzetako errepedea zeharkatu, eta 20 bat metrora ezkerretara, basabide bat hartuko dogu. Handik, Atxarrea mendi-hegala igoko dogu, espezie autoktonoekaz landatutakoa. Talaia honetatik, landazabalaren eta paduren ikuspegi ikusgarriaz gozatuko dogu. Bidea malda txiki batetik igotzen da, eta bere ibilbidean, Gautegiz Arteagako bidekei dagozkien marka zuri eta urdinak eta geziak aurkituko doguz. Horreetatik, *1. Ibilbidea: San Martin- Atxarreko San

frontoia inguratzen dauen bidea hartuko dogu, Kanalako ostra haztegriraino jaisteko. XIX. mendearen amaieran sortutako ostren ustiatagia da, gerra zibila hasi arte lanean aritu zana. Inguru honetan padura arkitekturaz jabetu da, eta jatorrizko eraikuntza kolonizau, koloreztatu eta estali dau, aura fantasmagoriko baten baina xarmaz betetako giroa sortuz. Antxinako lamina erromantiko baten antzerakoa da, bere ingurune naturalak barriro konkistatutako giza-espazioa.

Zelaieta auzora bueltauko gara, bide beretik, eta, Arteagako Gaztelutik abiatuta, ezkerredera egingo dogu, errepedierantz. Errepidea zeharkatu, eta Santa Maria elizara iritsiko gara. Tenplu gotiko bikaina da, eta portada erromanikoa dauko hegoaldean.

Gautegiz Arteagako paisaietan eta ondare historikoan barrera ibilbide hau amaitzeko, elizatik ondoko errepede txikitik jaitsiko gara, Oletako errotaraino. Errota haran txiki batean sartuta dago, eta presa handi

bat dauko atzeko aldean. Errota, jada XVII. mendean dokumentatua, bizitzeko eta bizimodua aurrera eramateko beste modu batzuen azken lekukoetako bat da.

Ibilbide honetan aurki daikeguzan ondare eta naturgune berezietz gain, Gautegiz Arteagak beste hainbat erakargarritasun be badaukoz, horreen artean Andrabideko harrobiaren aparteko monumentu naturala, mozketa, terraza eta paretu espazio ikusgarria, mendeetan zehar harriarri zizelkatua bertoko kareharri gorria ustiatzeko, erromatarren garaitik XX. mendera arte.

Bizikleta eta emoziozaleentzako, hegaztiak behatzeko gune aparta dan Urdaibai Bird Centerretik gertu dagoen "bizi-pista", perfektua da. Hemen bizikletazaleek euren abilitadeak hobetu eta gozatzeko aukera apartekoa dauke.

Herriko erdigunera bueltatuz, bertoko ostalaritza-lokaletako batean atsedean txiki bat hartzea gomendatzen deusugu, Gautegiz Arteagako txakolinaren zapo-reak ezagutzeko. **UM**



Arteagako Gaztelua



Rosa

Rementeria del Villar

ROSS DANTZA ESKOLA

Dantzarekiko pasinoa eta maitasuna, errespetua, diziplina eta lana, lan handia... horreek dira *Ross Dantza Eskolako* errotulu beti argitsuaren itzaleko berbak, Rosa Rementeria del Villar dantzari eta koreografoa buru daukola.

Rosa Rementeria del Villarrek bizitza osoa darama dantzan, bere *leit motiv* da. Bere balio irmoek, esperientzia-urteetan finkatuak, prestakuntza zorrotz eta etenbakoak, eta proposatzen jakon guztian ipinten dauen inplikazioak, erritmoa jartzen deutsoe bere ibilbideari.

ROSA REMENTERIA DEL VILLAR

Dantzari eta koreografoa

Zelan lortzen da "dantza eskola bat baino gehiago" izatea?

Leku seguru bat eskaintzea da kontua. Hemen espilu baten aurrean gagoz, eta konpleju asko ikusten dira, batez be gaztetxuenak, eta laguntzeko gagoz, ez bakarrik dantzatzeko irakasteko. Azkenean, horrela sortu dogu familia bat. Dantza-tzeak burua asko askatzen deutsu. Hemen berba egiten dogu, geure gauzak komentatzen doguz, batzuen eta beste artean alkarri laguntzen deutsagu. Ez da oso ohikoa dantza-eskoletan. Eskola askotan jendea joaten da, dantzatzeko dau eta alde egiten dau, baina ez da nik gura dodan eskola mota. Ikasleen % 85a plazerragaitik etorten da, eta lana amaitu ondoren dator, seme-alabak etxean itxi ondoren... Lehenengo gauza etorri gura izatea da, eta etorri gura izateko espazio seguru bat eskaini behar da.

Zelan lortzen da hori?

Zure ikasleak ondo ez dagozenez konaturatzen zara. Errazena ez begiratzea litzateke, baina hemen ez gara horrelakoak. Ekintza simple batez asko egiten dozu. Klaseko lehen bost minutuak astea zelan dihoazkien galdetzen emoten dodaz. Eurentzat garrantzitsua da.

Zu beti zagoz hor, baina denak dagoz hor zuretzat be...

Horrela da. Bihotza handitzen jat eta aho zabalagaz esaten dot. Hainbeste daukot eskertzeko... guztirako dagoz eta bardin da zer eskatzen deutsedan. Esaten deuste "hemen gagoz zu be beti hor zagozelako guretzat". Pentsatzen badot... zeozer ondo egin behar dot, orain dala 15 urtetik nigaz dagozelako. Ikasle batzuk 5 urtegez hasi ziran eta gero euren ezkontzetara gonbidatzen naue. Errazena ikasle asko dauzkadala esatea da, baina gaxena mantentzea da.

Nondik datorkio Rossi dantzarako grina?

Etxetik dator. Ni ama dantzari batengandik nator. Ama Filipinetatik dator eta hor kultura funtsezkoa da. Bere familian, de-

Nire eskola leku segurua da, familia handi bat

nek jotzen dabez instrumentuak eta dantzatzeko dabe balleta, jaza eta, amaren kasuan, klakea. Txikitatik neureganatu dodan zerbait da. Amak Bilbora eskola gehiago hartzeri animau ninduen, eta horrela hasi zan dana.

15 urteko ibilbidea dantza-eskolan, eta oindino ez jatzuz gastau puntak. Hasi zinenean, argi zeunkien nora iritsi gura zenuan?

Beti gustau izan jat dantza. Amaren eskoletatik Bilbora joan nintzan. Han irakasle zoragarri bat izan neban. Maitane Zalduegi, berak asko animau ninduen. Familiaren eta irakaslearen laguntza horrek aurrera

egitera bultzatu ninduen. Zorabehar handiz pentsau neban nire eskola zabaltzea.

Sukaldaritza eta dantza konbinatu zenuen be, ezta?

Leioan ostalaritza ikasi neban, eta ostalaritzako klaseen ondoren, arratsaldeetan, Deustura joaten nintzan, "Juan Antxetara", gaueko 10ak arte dantza klaseak egitera. Bi gauzetan trebatzen ari nintzan, beti lesino garrantzitsuen bildurrez. Ostalaritza oso ondo emoten jatan, baina gauza bat edo bestea erabaki behar izan nebanean, arriskatu egin nintzan. Ordurako banekien dantza zala benetan gustatzen jatana.

>>>



Ross bere klase batean. Argazkia: Txebi Arriaga



Ross bere dantza eskolako ekitaldi baten amaieran. **Argazkia:** Txebi Arriaga

Zer emoten deustu dantzak?

Badakizu zer dan egunero zure lanpostura heltzea eta lanean ari zarala ahaztea? Mundu guztiak ezin dau hori esan. Egia da egun batzuetan nekatuta zagozela, baina play-ari emon eta ikasleak ikusten dozuenez, eskolara etorteko egiten daben ahaleginak ez dauko preziorik. Zelan hobetzen diran ikustea poztasun handia da. Egunetik egunera, urtetik urtera zerbait hobe egin gura izateko ahalegintzen naz. Horretarako, prestatzen jarraitzen dot eta irakasleak horixe bera egitera animatzen dodaz. Etenbako prestakuntza da. Eskola bezala erne eta prest egon behar dozu.

Zure eskolatik artistak be atera dira, horren kasu Amaia Aberasturi. Zer sentitzen dozu bere ibilbidean garrantzitsua izan zarala jakitean?

Harrotasun osoa. Amaia txikitatik kementsua zala ikusten zan. Dantza eskolan ikasleak ekintza desbardineta bialtzen

saiatzen gara, *castingak* bezalako ekitaldietara. Amaia kasuan, *Zigortzaileak* filmaren *castingera* joateko esan geuntsazan. Bildurrik ez izateko esan neutson, eta klaseko koreografia bat dantzatu eban. Esker ona sentitzen dot, Amaia programa askotara joan dalako eta geu izentau gaituelako, neu izentau nauelako. Horrek esan gura dau markau egin dodala. Oin-dino klasera etorten da ahal dauenean eta interpretazio klaseak emoten dauz eskolan. Harrotasun handia sentitzen dot, oso urrun iristen ari dalako, baina ez dau ez umiltasunik ez esentziarik galdu, berak badaki nondik datorren.

Eta Zetak edo Gatibu bezalako taldeekaz egindako kolaborazioak. Zelan hasi ziran? Gatibugaz izandako le-

hen aukera "*Aske maite, aske bizi*" bideoklipa izan zan. Bideorik onena dala uste dot, eta ekarpen handia egin eban musika munduan. Gustura lan egin genduan, giro ona egoan. Bideo horren ondoren kontzertu batean dantzatu genduan eta beste bideo bat be egin be, "*Ez naz makurtuko*" izenburukoa. Horreetan ez dot dantza ikusgarririk egiten, mundu guztiak imitau leikiezan dantzak izatea gura dodalako. *Aske Maite*ren koreografia eskola askok imitau dabe, *Goazen!* en... Geuretzako oso pozgarria da.

Dantzaren demokratizazioa zeure indargunea da, zure eskolan mundu guztiak dantzatzen dau.

Aldarrikatzen dot. Dantza taldean potolatxak, altuak, bajuak... danetarik daukuguz. Ez gagoz balet osoak 40 kilokoa izan behar eban urte hareetan. Estandarrik ez. Badagoz beste eskola batzuk horrelakoak, baina hemen danok bardinak gara.

Zer da "Loturak Dantza Konpainia"?

Eskolako dantza konpainia da, danak ikasleak dira eta zoragarri egiten dabe dantza. Harrotasun handia da. Beste batzuek eskola bakoitzeko onenak bilatzen dabez, baina nik ez. Lehiaketetan bezala da. Niretzat garrantzitsuena ez da lehen saria irabaztea, garrantzitsuena dantzaz gozatzea da, diziplina izatea, gurasoak tartean sartzea eta danok familia bat bezala egotea.

Ni ama dantzari batengandik nator. Ama Filipinetatik dator eta hor kultura funtsezkoa da

Badakizu zer dan egunero zure lanpostura heltzea eta lanean ari zarala ahaztea?

Beste taldeekiko errespetua be irakasten dot, balio horreek irakatsi gura deusdaz nire ikasleei.

Gernika-Lumon finkatuta eta orain Bermeon be, zelakoa izan da prozesu hau?

Eskola zabaldu aurretik Gernika eta Bermeoko kiroldegietan emoten nebazan klaseak, eta pena handia emon eustan ixeak. Bilbao Basketeko koreografoa izateari be utzi behar izan neutson. Bermeoko kiroldegiko ikasle heldu asko Gernikara etorten dira eskolara, baina neska gazte asko aukera barik geratu ziran. Beraz, iaz, lonja bat aurkitu neban Bermeon. Pentsau neban, irakasleekaz berba egin neban, talde handia garalako, eta Bermeon eskola zabaldu genduan. Hau bigarren kurtsoa da eta 100 ikasle baino gehiago doguz, Gernikan 500 baino gehiago. Oso pozik nago.

Ikasturte amaierak edo ikuskizun propioek ehunka familia batzen dabez antzokian. Zelan prestatzen dozu guztia beti arrakasta izateko?

Urtero pentsatzen dogu zelan egin daikugun familiek goza daiezan. Musikalak egitea erabaki genduan, ikasleek dantzaren gaia ez ezik interpretazioa be lantzeko. Uste dot arrakasta ilusino handiagaz egiten dogulako datorrela. Eta ikuskizunaren atzean lan handia dago.

ACADE (Irakaskuntza Pribatuko Ikastetxe Autonomoen Espainiako Alkartea) azterketarako be prestatzen dozuz zure ikasleak. Zertan datza?

Dantza modernoko eta ballet klasikoko azterketak dira. Zapatuetan ikasleak egingo daben kurtsoarako prestatzen doguz. Azterketetan musikaltasuna eta erritmoa

>>>



Ballet-klasea Ross Dantza Eskolan. **Argazkia:** Txebi Arriaga





Ross Dantza Eskolako ikuskizuna. Argazkia: Txebi Arriaga

baloratzen dabe, ondo egiten badabe, baina bakarrik egin behar dabe. Gure ikasleek daukeen adorea gure harridura geratzen naz, epai-mahai baten aurrean dagozelako, pianista batez eta Espainia osoko jendeagaz. Euskal Herritik ACADE-gaz hastean aitzindaria izan naz.

Erregeen kabalgata, GMEn moda desfilea, etab. Herriagaz dozun inplikazioa nabaria da. Zein da zure sekretua gauza guztietara iristeko?

Nire herrian era askotako jarduerak egotea gustatzen jat, horregaitik Gernika-Lumoko Jai Batzordean sartu nintzan, hainbat emanaldi proposatzeko eta nire eskolako ikasleek zerbait eskaintzeko izan eien. Gauza batzuetarako ez da dirurik behar, jarrera eta gogoia baino. Bermeon horrek atentzioa emon deuste, mugimendu handiagoa dagoelako. Jarrera izatea da. Hemen inplikazioa falta dala uste dot. Ni inplikatzeko ez da lan egiten dot tokaten ez jatenean be. Urteekaz lan egiteko modua desbardina da eta guztia askoz arinago eta azkarrago doa. Adibidez, iaz GMEn desfilean askoz lan gehiago egin behar izan neban, lehen urtea zalako. Tal-

de bat garalako iristen gara danetara, eta delegatzen be ikasi dot. Dedikazio osoa da, asko gustatzen jatelako egiten dodana.

Ez gagoz balet osoak 40 kilokoa izan behar eban urte hareetan. Estandarrik ez

Zelan ikusten dozu Ross Dantza eskola beste 15 urtetan?

Espero dot orain arte bezala behintzat, jendea pozik etortea. Nigaz 15 urte daromatzenak alkarregaz zahartzen jarrai daigun, oraingo neskatok hazten eta gozatzen ikustea, eta, beste zerbaitetan aritzen badira be, garai honen eskolako oroitzen polita izan daiezala eta gorde gaitzela euren bihotzean betiko. **UM**

Arkeologiaren balioa XXI. mendean

JUAN CARLOS LÓPEZ QUINTANA (Arkeologoa, AGIRI Arkeologia Elkarte) (arkeoagiri.org)

Urte honen hasieran (2024), egunkarietako titular batek berehala arreta piztu eustan. Horreetako batean honelako zerbait irakur eitekean: *"Hauek dira lana lortzeko Espainiako unibertsidade-karrera txarrenak"*. Albiste BBVA Fundazioak eta Valentziako Ikerketa Ekonomikoen Institutuak (*"Unibertsitate laneratzearen analisia"*) egindako txosten batetik etorten zan. Bertan, arkeologia lan-irteera txarrena eukan zazpigarren karrera bezala agertzen zan, aurretik beste sei eukazala: Filosofia, Kontserbazioa eta Zaharberritzea, Artearen Historia, Historia eta Literatura, Arte Ederrak eta Hizkuntza Modernoak. Bitxia bada be, karrera horrek guztiak Humanitateen, Artearen eta pentsamenduaren adarre dagozkie, eta antza danez, eta trisuraz, XXI. mendeko kapitaleko gizartean ezer gitxi dauke esateko.

Baina, ze ekarpen egin daike arkeologiak XXI. mendean?

Maiatzaren 6ko 2019 Legeak, Euskal Kultura Ondareari buruzkoak, honela definitzen dau kultura-ondarea, honen barne Ondare Arkeologikoa dagoela: *"iraganetik oinordetzan jasotako ondasunen multzoa, hauetan gizarte bakoitzak kontserbatu eta transmititu beharreko balioak onartzen dauz"*. Lege honen helburu nagusia Kultura Ondarearen kudeaketa integratua bermatzea da, honen barne: ikerketa, kontserbazio-babesa, zabalkundea eta balioa emotea.

Ikerketaren helburuan zentruko naz eta geure jatorriari buruz asko jakitea ahalbi-

detzen ari dan arloetako bat azalduko dot: Arkeogenetika. Eta Santimamiñeko kobazuloan egindako ikerketa bat aipatuko dogu, zeozelan be "aspaldikoa".

Nondik gatoz?" galdera gizakiari datzekion zerbait da, eta historian zehar Mitologia, Erlijinoa eta Zientziaren bitartez azaldu da. Gaur egun, barriz, geure kultura- eta ingurumen-iraganaren ezagutza zientifikoan aurrera egitea dagokigu. Arkeologiari lotutako diziplina desbardinen potentzial itzelak, batez be Biologia eta Geologiaren baitan, orain dala hamarkada gitxi batzuk pentsaezinak ziran gaietara hurbiltzeko aukera emoten deusku. Adibidez, 2009-2012an Santimamiñeko kobazuloan lurperatutako zazpi personaren DNA mitokondria aztertu zan. Karbono 14aren bidez horrela datatu ziran: Kristo aurreko 5000 urte lehenagokoa, zaharrena, eta erromatarren garaikoa, barriena. Genetistek (UPV-EHUkoek) Santimamiñe inguruko egungo biztanlearen laginak hartzea pentsau eben (Kortezubi, Gautegiz Arteaga, Ereño eta Nabarniz udalerrietan), aurretik aztertutako historiaurreko aztarnak egungo populazioagaz alderatzeko. Guztira 158 personak aurkeztu eben euren DNA azterketarako, eta emaitzek bermatu egin eben antxinako eta egungo populazioen arteko mitokondria-leinuen jarraitutasunaren hipotesia (https://www.academia.edu/37859339/Ancient_mitochondrial_lineages_support).

Harrezkero, DNaren sekuentziazio masiboko teknika barriek (NGS) ezustekoak emoten deuskuez, zenbait autorek arkeo-

logiako hirugarren iraultza zientifikoa deitzen daberen barruan. Azken urteotan agerian geratzen ari da Anatoliako populazio neolitikotatik eta estepa pontikoan arbaso barriak daukozen Europa erdialdeko populazioetatik jaso dogun ekarpen genetiko garrantzitsua. Zona hori Itsaso Baltzaren iparraldetik eta Kaukasotik Ural mendien hegoalderaino hedatzen da.

Nire ustez, datu horrek guztiek eredu zaharrak apurtzen eta gure jatorriak ezagutzeko ikuspegi barriak emoten ari dan Zientzia lez agertzen deuskue Arkeologia, eta horrek beti piztu dau gizakiaren jakin-mina. Horregaitik, eta aipatutako txostena gorabehera, behar-beharrezkoa da arkeologo belaunaldi barriak sortzen jarraitzea. Joxe Migel Barandiaranek 1983an Ataungo bere etxean egindako alkarrizketaren batean esan eustan bezala: *"orain ondo ezagutzen dauenak asko daki, baina iragana be ezagutzen dauenak gehiago daki"*. ■





Aritzatxu hondartza

Bermeon ondoan gordetako sekretua

Naturak txoko berezi bat oparitu deutso Bermeori, diskrezio bako begiradez, kuxkuxero eta baita be bisitariezin babes-tutako hondartza. Leku hau hain da berezkoa bermeotarren bizipen eta oroitzenentzat, bertokoei erabiltzeko eta euren gozamenerako soilik izatea gurako leukeela. Aritzatxu hondartzaz ari gara.

Aritzatxuko erreferentziak gordetzen dauden XVIII. mendeko dokumentazioa dago, eraikuntza-lanetarako erabiltzen zuten harea-harrobi lez agertzen da bertan. «Sacar arena de Ariezachu», «cantera de Ariezachu» (Bermeoko Toponimia, Udala, 2007). Bere izena, hizkuntza aldaketa batzuk jasan

dauz eta "Harea" berbatik dator (Ariezachu – Arietzatxu – Arietzatxu – Aritzatxu). Hondartzako txoko batzuek izen propioa dauke, esaterako Aspoandi eta Aspotxiki, Aritzatxun barnertzen zaituen hatxarte bi dira. Gure itsasertzeko harribitxia da, bere edertasunagaitik eta balio natural eta geologikoagaitik.

Aritzatxu, bere tamaina dala eta, hondartza bat baino gehiago kala bat da. Hatx handiek babesten dabe olatuetatik, olistolitoak dira, olisto (harria), lito (handia). Orain dala 100 milioi urte, Bizkaiko Golkoa zabaltzen ari zan, eta bere hedapenaren ondorioz, itsas hondoa itsaspeko eremu garaietan zatitu eben failak sortu ziran. Milioika urte geroago, materialen higadurak Aritzatxuko hondartzaren morfologia apertatsua ekarri dau, oso material finez osatutako harriekaz, animalien fosilak gordetzen dabezen itsas hondo sakoneko materialekaz.

HONDARTZA GOZATZEKO

Hondartzak aisialdi eta gozamenerako leku bihurtu ziran XX. mendearen hasieran. Ordura arte lanerako lekuak ziran (arrantzarako, ontziak egiteko...). Hasiera batean, sendatzeko tokitzat hartu ziran, batez be arnasketa-gaixotasuneetarako, eta, apurka-apurka, herritarrek itsasoan bainatzearen plazera deskubridu eben, soil-soilean aisialtiagaitik. Itsasoa zerbait arriskutsu lez ikusteari utzi eta dibertigarria izatera pasau zan. Aritzatxuren kasuan, 20 eta 30eko hamarkadetan hasi ziran bermeotarrak kala honetan bainua

Aritzatxuren ezaugarria bermeotarren hondartza izatea da

hartzen. 30 eta 40ko hamarkadetan egurrezko etxolak jarri ziran jendea aldatu ahal izateko, baita bainujantziak alokatu be, garai hartan bainujantzia jende dirudunaren jantzia zalako. 60ko hamarkadatik aurrera, hondartzako turismoaren *boo-*

ma gertatu zan, eta jendea hondartzaz modu masiboan gozaten hasi zan.

Aritzatxuko hondartzaren neurriak txikiak dira, 75 metroko luzera dauko, eta bere zabalerari dagokionez, itsasbeheran 60m²-ra iristen da eta itsasgoran 25m² baino ez daukoz. Halanda be, hondartzako egun lasai bat pasatzeko zerbitzu guztiak daukoz: sorosleak, hondartzaina, komunak, txosna eta hareazko erloju bat. Toalla jartzeko, hauta daitezke, batetik, harea, itsasgoran ia desagertu egiten dana, eta, bestetik, hormigoizko eremu bat, gehien erabiltzen dana, edo gorago dagoen landa bateko bedarra.

Hormigoizko plaka 60ko hamarkadaren hasieran eraiki zan, eta horren gainean eraikin txiki bat eraiki zan kantina, dutxak eta aldagelak ipinteko. Hainbat

aldiz barrizatu da, egungo kokapena eta egoerara izan arte. 60ko hamarkadan baziran Kantauri itsaso zakarra baretzeko eraikitako hormak, hondartza ekaitzetatik babesteko. Baina 1970-71 urteetan bi esku-hartze garrantzitsu egin ziran, egoe-

naren antzeko neurriko eustorma bat eraiki zan, handiagoa eta sendoagoa, eta hondartzaren erditik pasaten zan erreka bat bideratu zan. Horrek, bere fisionomia aldatu eban.

Hareazko erlojua hondartzara joaten zan koadrila baten ekimen partikularra izan zan. 1963an jarri zan *Atxa Nagusidxeren* arrapalaren gainean, hondartzara jaisten ziranek eskumuturreko erlojurik eraman barik joan ahal izateko.

Baina Aritzatxuren ezaugarria bermeotarren hondartza izatea da, koadrilak batzeko alkargunea, belaunaldiz belaunaldi alkartzeko eta gozatzeko lekua. Bere kokapenak, apur bat ezkutatu, eta bere sarbideak, aldapa gogorra baten atzean, laburra baina handia, bereziki aldapatsua bueltan, jendetzaren babesean mantendu dau. **UM**

Iturriak *Itsosupeteko ondarea Bermeo* Asier Romero Bermeoko Toponimia, Udala, 2007, Irune Allika; Bitor Uriarte.



Aritzatxu hondartza

Pepi Urdaitegia

30 URTEKO ARIMA
EKINTZAILEA

Gernika-Lumoko merkatu plaza da bere habitata. Bertan, Gernika-Lumoko ikono enblematiko honen une distiratsuenak bizi izan dauz eta baita be merkatal zentro handien helduera edo pandemiaren aurreko eta ondorengo egoerak be. Pepi urdaitegiak 30 urte bete dauz urrian, kalidadezko produktuak eta pernila ikur lez.



Pepi Rodríguez bere merkatu plazako postuan

Pepi Rodríguez extremadura-rra da negozio honen buru, ikasteko gogoz hasi zan eta egunez egun ikasten jarraitu dau. Iritsi zanean bere lekua bilatu eban eta Gernika-Lumoko merkatu plaza zan lekuri onena. "Urdaitegiko mundua apur bat eza-gutzen neban, hemen egunero ikasten dozu eta. Produktu iberikoak saltzen ebazan urdaitegi bat egoan plazan ta zarratu eban, Txiki Urdaitegia. Jabeak itxi egin eban nabigatzera joan zalako. Postu hori hartzeko asmoa neukan, baina beste batzuek hartu eban, eta ni lehen harategi bat zan postuagaz geratu nintzan. Lan egin gura baduzu eta gogoa jartzen badeutsazu, erraza ez da, baina ezinezkoa bez", dino Pepik.

Hasiera gogorak izan zirala onartu arren, Pepik merkatu plazako unerik onenak bizi izan dauz, "jende asko egoen, ez dauko zerikusirik orain dagoenagaz. Oso polita zan, arrandegian Coro egoan. Postu gehiago egon ezkerorain askoz hobeto egongo zan. Nahiz eta ez erosi beste postu batzue-

tara bazoaz, giroa sortzen dozu. Nik betidanik erosi dot plazan, arrautzak, ortuariak... Uste dot ez dodala inoiz arrautzarik erosi supermerkatu batean".

Plazako denda izaten emon dauzen 30 urteetan, Pepi Urdaitegia garai goragarriren lekuko izan da. Garai eder horretan postuz beteta egoan merkatu plaza eta bezeroek euren erosketak plazan egiten eban. Merkatal gune handien etorrera be bizi izan dau Pepik, erosteko modua aldatu egin ebana. Pepik jakin izan dau gure erosketa-ohituren aldaketa horreei aurre egiten, kalidadeagaz eta zerbitzu onagaz. "Hasi nintzanean ez egoan ez Eroski, ez BM, ez Lidl, ez Mercadona, ez Dia... gero etorri zirari eta eutsi egin deusagu. Gu merkatal zentro handi batetik bereizten gara kalidadeari eta zerbitzuari dagokienez, prezioari dagokionez ezin gara lehiatu. Beste zerbaitek behar dogu, jendeak errespetu gaian eta erosten jarrai daian. Guregana datorrenak badaki zer gura dauen. Nik leku guztietan dagoena eskaintzeak ez dauko zentzurik.

Zeezer desbardina izan behar dot eta hobe izaten saiatu. Pernil iberikoa saltzen badot, ezin dot edozein pernil ondu saldu, horretan be badira kalidadeak. Nik erosiko neukean produktua daukat. Ez dau esan gura egun osoan iberikoa jaten ari naitzenik, baina nire kontzientziaren arabera saltzen dot".

30 URTE PLAZAN ASKORAKO EMOTEN DABE

Gure ohiturak eta lehentasunak asko aldatu ebazan pandemiak, eta erresilientzia birtute bat baino gehiago izatea eragin eban. Gernika-Lumoko merkatu plaza be makaldu zan, "pandemian nik baserritarren arrautzak saltzen nebazan, haiek ezin ziralak etxetik atera. Batzuek betidanik jarraitzen dabe etorten, baina pandemiagaz aldaketak egon zirari. Adineko jendea lehen asko eta lehen orduan etorten zan, baina orain ez dirala etorten esaten deuste, seme-alabak edo lobak erosketak egiten deusezelako eta beste leku batera joaten dira erosten", azaldu dau Pepik.

Plazak aurpegia garbitu behar dau gutxienez. Gernika-Lumoko merkatua enblematikoa izan da eta berreskuratzea gatxa izango da

Plazari lehen bizia emoten eutsen postuen kopurua murriztu egin da eta dagoenek, Pepi kasu, atsekabez ikusten dabe egoera hau. "Niri merkatua asko gustatu izan jat beti. Jendea erosketak egitera etorten da, astelehenetan makailaokoak, Iturbe harategikoak eta gu, martitzenetan, arrandegia, Iturbe eta gu. Hiru postu gagoz. Alokairu-kontratua barriztau zanean jende askok alde egin eban, udalak prezioak asko igo ebazala esan zan, baina ez da egia. Guk kontratua barriztau genduan 25 urte bete genduzanean beste 15 urterako, udalak sarrera zatikatu egin euskun eta 15 urtetan 30€ edo igo deuskuz. Zentzu horretan, udala oso ondo, baina pena mantentua da. Plazak aurpegia garbitu behar dau gutxienez. Gernika-Lumoko merkatua enblematikoa izan da eta berreskuratzea gatxa izango da".

Gernika-Lumoko eta eskualde osoko askotariko bezeroak daukoz Pepik, "aste barruan etxeoandak eta asteburuetan gizonak be, batzuetan txokoetan bazkariak egiten dabezenak". Mobimentu handiko sasoiak dira Gabonak eta jaien aurreko astea, abuztuan. "Hornitzaileei Gabonetako erreserbak ekainean egiten deuseguz, bestela azken orduan daukatena bidaltzen deusue eta nik nire kalidadeari eta zerbitzuari eutsi gura deuset". Pepi urdaitegiak ez dau belanaldi-erleborik izango, "Pepi jubilau arte egongo da eta pena handia emoten dau. Baina Ticket Bai martxan hasten bada eta 60 urtetik gorakook ez bagagoz salbuetsita, Araban edo Gipuzkoan bezala, nik ezin dot neure gain hartu horrek eskatzen dauen inbersinoa. 61 urte dauzkat, ahal dodan bitartean lan egingo dot". **UM**



Enrike Zubia bere estudioan.
Argazkia: Itoitz Navarro

Hamasei urte gaz Eibarrera joan zan damaskinatzaile maisuaren lanbidea ikastera, pinturagaz eukan trebetasuna aprobeatza leikean lanbidea. Bitxi-dendentan aurkitu eban lana, izenak eraztunetan eta medailoietan grabatuz, eta Gernika-Lumon be lan egin eban, *Astra*, *Unceta* y *Cia* fabrikaan, pistoletan urrezko inkrustazioak jartzen, baina margotzeko beharri-zanak eta kuadroetan islatu gura ebazan ideiek burua betetzen eutsoen. *"Burua bi lekutan neukan, margotzen hasten nintzan eta damaskinatzaile lanak amaitu behar nebazelako deitzen eustazan. Horrela, urte batzuetan, proba egitea erabaki neban arte: erakusketa bat egin neban Bilbon, ze emaitza eukan ikusteko, eta ondo joan jatan. Garai hartan pintura asko saltzen zan, beraz, lana utzi neban"* kontatzen dau Enrike Zubiak.

Bere umetako Bermeok bere lan askoren gaia markau dau, Bermeo hori ez da bardina, berak ziurtatzen dauenez. *"Giroa ikaragarria zan, portuko zarata, koloreak, usaina, arrantzaleak eta neskatilak. Aitak,*

arrantza egiteaz gain, kordeleria bat eukan ta han azulejuak eta beste arrantza-tresna batzuk saltzen ebezan. Ni neu, 14 urte-gaz, beragaz ateratzen nintzan arrantzara. Oroitzapen horreek nire koadroetan agertzen dira. Baina, egia esan, orain 14-15 urte baneuz, ez dakit Bermeok nigan eragin bera izango leukeen, Bermeo hori jada ez dalako existitzen. Gainera, garai hartan pintore talde handi bat egoan Bermeon, Benito Barrueta Peña Artistikoagaz, eta asko mugitzen ziran, erakusketak egiten ebezan, Bilbotik lanak ekarten ebezan... horrek pinturagaz lotutako giro bikaina emoten eban, berba egiteko, eztabaidatzeko, gogoak... Gernikatik etorten ziran margolariak eta alkarregaz ondo konpontzen ziran, baldintza egokiak emoten ziran eta jentea bideak betean joaten zan erakusketak ikustera", dino Zubiak.

Orain pinturan zentratuago dago, baina eskultorea be bada eta bere herrian profeta izateko zortea dauko. Bermeoko kaleak bere eskultura-lan batzuek az

apainduta dagoz: *Arrain saltzaileak, Badatoz!* eta *Azken olatua, azken arnasa*, arrantzaren munduari erreferentzia egiten deutsoenak, eta *Esnedunak*, baserritarren munduari lotua. *"Harro egoteko modukoa da herrian zu aintzat hartzea eta hor jarraituko dabela jakitea. Gertatzen dana da eskultorek daukozen akatsak ikusten dodazela pasaten nazen bakoitzean"* dino barrez Zubiak.

ESTILO MUGABAKOIA

Bere estiloa "mugabakoa" lez definitzen dau, eta guztia bere burutik, paisaiei edo irudiei buruz daukon ikuspegitik sortzen da. *"Gaztelugatxe mila aldiz margotu ahal dot eta guztietan desbardina izango da, baina mundu guztiak errekonoziduko dau"*. Hori izan da, hain zuzen be, galeria batzuek izan dauen eztabaida txiki bat, obra guztiek hari nagusi bat izan eien eskatzen eutsoelako, ikusleek autorea erakusgai egozen lan guztietan ezagutu ahal izateko. Zubiak ez dau hori ulertzen eta ez dator bat horregaz. *"Nik une horretan sentitzen do-*

dan bezala margotzen dot, eta egun bakoitze

>>>

Bere umetako Bermeok bere lan askoren gaia markau dau, Bermeo gaur egun ez da bardina

Enrike ZUBIA

Oindino zain nago penetan harro senti naiteken obra sortzeko

Enrike Zubia txikitatik harrapatu eban pinturak. Zortea probau eban ohiko lan bategaz, baina artea inguruan dabilenean gatxa da ez-ikusiarrena egitea. Bere haurtzaroko Bermeoren isla dira bere lanak, portuko zala-partagaz, itsas usainagaz, astoek tiratutako

gurdiekaz, neskatilekaz, arrantzaleekaz... Irribarre nostalgiko batez gogoratzen dauz urte horreek. Orainagaz lotura galtzen ez dauen artista da eta orain gai barri bati buruzko lan bat sortzeko prozesuan dago.



Enrike Zubia "Badatoz!" bere eskulturaren ondoan

estilo desbardina izan daiteke. Halanda be, funtsean, jentek badaki nire koadroak ezagutzen. Nire aitzakia da Picassok gauza bera esaten ebala:

Bere obrak sortzeko prozesua ideia bategaz, abesti baten izenburuagaz edo erreparau deutson zehetasun bategaz has daiteke. Behin buruan sartuta, prozesua hasten da. Figura eta paisaia dira bere espezialidadeak. "Garai batean asko saltzen ziran arrantzaleen irudietako koadroak, personak lanean agertzen zirala. Baina orain inork ez dau gure etxean jendearen irudirik lanean, esfortzuak egiten, ez da

etxean... oso gai zabala da... hasi naz, baina kosta egiten da... mundu bat ixtea da beste batean hasteko, eta mundu konplejua da. "Goiz ederra" izenburua dauko eta formatu handian izango da, horrela koadroaren barruan sartzen zaralako konturatu barik, begiak koadrotik ateratzen ez diranez harapatzen zaitu, eta emakumeari buruzko lan hauek horrelakoak izatea gustauko litzakit" azaldu dau Enrikek.

Bere ibilbide artistiko luzean zehar zantzua uneak izan dauz, bere lana bertan behera ixteko uneak. Eta bere bizitza aldaketa ez leukeela argi badauko be, ez leuke



di-da BATEAN

Nor da zure artista gogokoena?

Picasso eta Matisse.

Eta zure obrarik gogokoena?

Picassoren hainbat dagoz, esaterako "Avignongo andereñoak", "Guernica" be asko gustatzen jat, bere indarra, marrazkien askatasuna.

Ze museotan gurako zeunke erakusketa bat izatea?

Museo txikietan, Durangokoan adibidez, edo Gernika-Lumoko Euskal Herria Museoan, Arte Ederren Bilboko Museoan...

Zelan lortzen dozu zure sormena bizirik mantentzea?

Batzuetan iruditzen jat ez dakidala margotzen bez, baina lan egiteak elikatzen zaitu, berrelkadura bat da. Kurioso be banaz, eta semeak beti animatzen nau jarraitzera.

Urdaibai artea baloratzen dauan eskualdea al da?

Urdaibai beste edozein eskualderen parean egongo litzateke. Badago artea baloratzen dauen jendea, baina gero eta jende gutxiagok baloratzen dau artea. Orain artea beste denbora-pasa bat da, sakondu barik.

Zelan ulertzen dozu artearen eta gizartearen arteko harremana?

Arteak gizartearen sustaritututa egon behar dau. Arteak gizartearen babesa izan daian, gizartearekiko kezka izan behar dau. Ez daiala pentsa artea artisten kontua danik.



Enrike Zubiaren lana. Argazkia: Aketz Zubia

lasaigarria. Orduan paisaiara kanbiau nintzan. Jauzi handia egin dot oliotik akrilikora pasatzean. Osasun kontu batengaitik be izan zan, baina onartzen dot akrilikoagaz eroso sentitzen nazela eta bilatzen dodana topaten dodala.

"Urdinez" (2015) da gehien maite dauen koadroa. Kanadan dago partikular baten etxean, baina hondinokarren be benetan harro senti daiten lana sortzeko zain dagoela aitortzen dau. Bere intuizioak esku artean daukona izan daitekeela dino. "Orain emakumearen gaiari buruzko programa bat daukat buruan. Oso purista eta lineala, emakumea aske, lanean, biluzik hondartzan, arrantzan... kirolean, tratu txarrak jasaten dauen emakumea, politikoki eta

beste persona bat bide bera hartzera animauko. "Oindino bi urte bete ez dauzen loba bat daukot batzuetan arkatza edo pintzela kentzen deust, eta gurasoek esaten dabe "agian aitita bezala izango da". Niri ateratzen jat esatea, "utzi umea, ez kaltetu bizitza". Nik estutasun-uneak pasatzen dodaz, ez saltzeagaitik bakarrik, lanagaitik be bai, ateratzen ez jatzunean, eta lanean jarraitzen dozunean eta ateratzen ez jatzunean... eta gatx da gertatzen jatzuna azaltzea. Nire bizitza ez dot ezergaitik aldatzen, baina ez nintzateke ausartuko inori esaten honetan aritzeko". Halanda be, segurutik ez litzateke beharrezkoa izango benetan artea landu gura dauen inor animatzea; izan be, Enrike Zubiak dinoenez, "pinturak deitzen zaitunean guztiz harapatzen zaitu".

UM



Berakatz, osasuna eta saborea

Gure gastronomiaren elikagai tradizionala da, errezeta askotan gozagarri bereizgarria. Eta askoz gehiago be bada, berakatz osasunari mesede egiten deutsoen propietate nutritiboz betetako landarea da, baita bitxikeriaz eta elezaharrez betea be.



Berakatz erraboil jangarria da, liliazeoen familiakoa. Bere izen zientifikoa *Allium sativum* da eta jatorriz Asia Zentralekoa da, nahi ta gaur egun mundu osoan landatzen dan. Mediterraneoan zehar hedatu zan feniziarren eta egiptoarren merkataritzari esker. Gaur egun, Mediterraneoan, Ekialde Ertaineko eta Asia erdialdeko sukaldaritzei bereziki lotutako osagaia da.

Kipulak edo porruak bezalako landare iraunkorra da. Erraboila ataletan edo normalean hagin esaten jakenetan banatuta dago, eta berakatz buru bakoitzak 6 eta 12 hagin artean daukoz, hurrengo urteko uztarako hazi gisa erabil daitezkeenak. 300 berakatz espezie inguru dagoz, baina bi bariedade nagusiak, berakatz zuria eta morea dira. Zuria ohikoagoa da European

eta Ipar Amerikan, eta sabore leuna eta gozo-antza dauko. Morea ohikoagoa da Asian, eta gogorragoa eta minagoa da. Gaur egun, berakatz baltza modan dago, sukaldaritzako *delicatessen*-tzat hartzen dana. Ez da berakatz bariedade berezi bat, hartzitako berakatz zuri bat baino. Prozesu honek bere saborea eraldatzen dau, gozoagoa bihurtuz.

Berakatz kultura askotako sukaldaritzan eta medikuntza tradizionalan erabili izan da milaka urtetan, sendatzeko balio dauelako. Alizina bezalako konposadu sulfurosoetan aberatsa da, eta bere sabore eta usain bereizgarria sortzen dauz honek. Konposadu horreek berakatzari immunitate-sistemea indartzeko eta infekzinoei aurre hartzeko lagungarriak diran propietateak emoten deutsoez. Antibiotiko na-

Gaur egun, berakatz baltza modan dago, sukaldaritzako delicatessen-tzat hartzen dana

tural garrantzitsua da, odol-zirkulazioa hobetzen dau eta glukosa-mailak orekatzten dauz. Nutrizino-propietateei dago kienez, bitaminak eta mineralak emoten dauz. Berakatz gordinik kontsumitzea da ohikoena osasunerako onurak lortzeko, erdibitu edo kontsumidu aurretik birrindu, hori da bere propietateak lortzeko modurik onena. Bere usain eta sabore gogorra leuntzeko, beste osagai batzuek nahas daiteke, esaterako oliba-olioagaz.

BERAKATZA SUKALDARITZAN

Ezin hobea da orio erreak egiteko, baita saltsak, kremak eta gisaduak egiteko be, osorik edo txikituta, eta plater gehienei ondo doakie saborea handitzeko. Berakatz osagai nagusi duen errezeta klasikoa, berakatz-zopa da, azkar prestatzen dan plater merke eta indargarria. Euskal familia askoren oinarritzako plateretako bat izan zan orain dala hamarkada batzuk, landa inguruetan askotan erabilitakoa. Errezeta honek saldatsua goa edo ez horrenbestekoa, edota olio zein ogi kantidade gehiago edo gutxiago izan eitekeen, familia bakoitzaren egoeraren arabera. Berakatz-zopak egiteko errezetak asko dagoz, eta horreetako bat zurrurutuna da, "zurrupatu" berbatik datorrena. Berakatz eta makailaoz egindako euskal zopa tradizionala da hau. Tradizionalki, zopako ogiagaz egiten zan, ogi gogor txigortua, eta arrautza pare bategaz egiten zan.

Zurrurutuna, berakatz eta makailaoz egindako euskal zopa tradizionala da

MITOAK, KONDAIRAK ETA SINISKERIAK

Berakatz beti egon da mistizismoz eta siniskeriez inguratua. Antxinatik etxeak espiritu txarretatik babesteko erabili izan da, eta zinean banpiroak uxatzeko erabiltzen eben. Siniskeria honen jatorria antxinako lurperatzaileengandik datorrela uste da, gorputzen usain txarra jasateko (denbora asko igarotzen zan gorpu bat lurperatu ahal eben arte) berakatz-kordak zintzilikatzen zirelako lepoan. Geroago, Erdi Aroan, sorginek euren edabeetan berakatzak erabiltzen ebezela esaten da. Siniste horreetatik siniskeriak agertu ziran geroago, adibidez, egiten ziran berakatz-kordek beti zenbaki bakoitia izan behar ebeela, beti 11 buru baino gehiago. Zenbat eta gehiago izan, orduan eta zorte hobea emoten eban. **LUM**

ERREZETA

Berakatz-zopa

OSAGIAK

- Ogia
- Orioa
- Berakatzak
- "Ahuntz -adar" piper sikua
- Ura
- Gatza
- Arrautzak (aukerakoa)

Ura gatzagaz eta bizpahiru berakatz-ataleka irakiten jartzen da denbora luzez, berakatzak ondo egosita egon daitezzen.

Buztinezko kazuola batean, zopa (ogia) meheak frijitzen dira, eragin, eta, txigortuak dagozenez, berakatz ura botaten da, irakiten utziz harrotzeko. Batzuek 'ahuntz-adar' piper siku bategaz egosten dabe, eta zerbitzau aurretik, arrautza pare bat bota ezker be ez dau galtzen.

Zopa hau saldatsua edo ez ixten da, gustuen arabera.

"El Amparo" jatetxearen errezeta
(Bilbao, 1952)



LURKOI BASERRIA

Ekologia bizimodu lez

Lurkoi Baserria enpresa bat baino gehiago da, bizi-proiektu bat da. Nekazaritza ekologikoko ustiategia da, eta orain dala 40 urtetik hona bost lagunek kudeatzen dabe Sollube mendiaren magaletan.

Osasuna eta jasangarritasunari lehentasuna emoteko hautaketek konzientea izan zan, geuretzako, geure komunitateentzat eta geure planetarentzat aldaketa positiboak sortzeko dogun boterea gogoraraziz”, azaltzen dabe Alberto, losu, Roberto, Tomás eta Iñaki Lurkoi Baserriko kideek, proiektuko eragileak. Fruta eta ortuariak ekologikoki ekoizten dabez, pestizida eta ongarririk kimiko barik, ohiko ekoizpen-sistemen aurrean alternatiba jasangarri eta arduratsu lez. Nekazaritza etikoaz berba egiten dabe, eta beren lan- eta bizi-eremua “leku magiko” lez definitzen dabe, “naturagaz bat datorren

harmonia mistikodun gunea, persona, animalia eta landareen bizikidetzakomunitate bat osatuz”.

Laster hasiko dira espezie autoktonoak basobarritzeko eta laborantzarako lurrak handitzeko proiektua



Lurkoi Baserriko ortuak

Gaur egun Lurkoi Baserria nekazaritza-ustiategi bikaina da eta ez dauko antzirik orain dala 40 urte zan tokiagaz. 18 hektareako lursail bat erosi eben, garai hartan pinudi bat zana, eta laborantzarako lur opatsua bihurtu dabe. “Erosi gendun lursailan dana egoan egiteke, zerotik hasi ginan sarbideak eraikitzen, telefonia, elektrizitatea, baserria, pabiloiak, negutegiak, nekazaritzako makineria, baserri-turismoa, etab. Eraldaketa eredugarria izan zan, urte hauetan guztietan sortu ziran oztopo mordoak gaindituz, ezebezetik hastea eta enpresa eta habitat oso ederra sortzea posible dala erakusten dauen adibidea izanik, amets bat errealidade bihurtuz” gogoratzen dabe. Proiektuak hazten jarraitzen dau, gaur egungo Lurkoi atxikitako beste 22 hektarea erosi dabezela, eta laster hasiko dira espezie autoktonoak basobarritzeko eta laborantzarako lurrak handitzeko proiektua. Lurkoi Baserriaren

proiektua Urdaibai Biosferaren Erreserba izendatzeagaz batera hasi zan. Busturrian dagoz, Sollube mendiko magaletan, Biosferaren Erreserbako espazioan, baina kokalekua aukeratu ebenean izendapen horrek ez eukan inolako eraginik izan, izendapenaren garrantzia oindino ezagutzen ez zalako; halanda be, orain zoriotsu dagozela eta hemen finkatuta egotea zorrite handia dala dinoe.

KONTZIENTZIA EKOLOGIKOA SORTZEA
Txandakatzeak, borroka biologikoa, landarez egindako konposatuak edo pres-takinak eta abar, eta laborantzarako biodibersidade eta habitat egokiak sortzea dira nekazaritza ekologikoko tekniketako batzuk. Argi dauke klima-aldaketa erabakigarria dala eta izango dala. “Zikloak aldatzen dira, landareak estresau egiten dira, izurriteak areagotzen dira... premiazko neurririk hartzen ez bada eta horrek horrela jarraitzen badau, etorkizunari segurtasun

barruan bere espazioa daukon proiektu bideragarria dala. “Izan be, existitzen gara geure produktuen eskaera handiagoa dalako eta kalidadezko eta ekologiko tokiko produktuak kontsumidu gura dabezen personen beharizanak betetzen doguzelako. Produktu organikoak erosteko erabakiak, ingurumenari ez ezik, geure nekazaritza-komunitate langileen osasunari eta ongizateari be egiten deutso mesede.

Nekazaritza ekologikoa osasunerako eta ingurumenerako onuragarria izateaz gain, proiektu bideragarria da

Produktu kimiko kaltegarriekiko esposizioa murriztean eta kutsadura minimizatean, etorkizun distiratsuagoa, garbiagoa eta iraunkoragoa lortzen laguntzen dogu guretzat eta etorkizuneko belaunaldientzat”. Lurkoi baserria eurentzat eta bertara hurbiltzen diranentzat ikasteko bizi eskola lez ulertzen dabe. Pentsamolde horregaz, Lurkoi prestakuntza-zentro bat be bada, Lanbidek eta Hazik bermatutako nekazaritza ekologikoari buruzko ikastaroak emoten dabez bertan.

Euren bizi-filosofia ez da batere aldatu urte hauetan guztietan, garai barrietara

>>>



Lurkoi Baserriko produktuak Gernika-Lumoko Urriko Azken Asteleheneko azokan

egokitu besterik ez dabe egin. Etxez etxe-ko biaketa eta baserrian zuzeneko salmenta dira saltzeko bide nagusiak, azokak eta merkatuak ahaztu barik. Bezeroei dagokienez, publiko fidela daukee, hasieran oso profil zehatzakoa zan eta gaur egun askotarikoagoa da. *"Hasieran geure ohiko bezeroa kalidazeko produktu freskoa erostera merkatu etortzen zan etxeoan-dra zan, eta gaur egun askotarikoagoa da, familiak, gazteak eta abar, ekologiarekiko eta osasunarekiko arduratsuak"*. Nekazaritza ekologikoaren garrantzia baloratzen ez dabenez, honako mezu hau bidaltzen deutsee: *"Ezjakintasuna dala ta, ez dabe produktuaren kalidazeko balioesten, ez eta euren bizitzarako dakarren hobekuntza be, osasunean eta gozo jateko gozamenean inbertiduz eta ingurumenarako suposatzen dauen onura. Hipokratesek esaten eban bezala"*, *"Zeure elikagaia izan dadila zure sendagaia eta sendagaia izan dadila zure elikagaia"*.

Euren bizi-filosofia zabaltzeak Lurdeia Baserria sortzera eramán eutsoen, orain dala ia 18 urte. Hotel honek sari garrantzi-




Lurkoi Baserriko kideak. **Argazkia:** Lurkoi Baserria

tsuak jaso dauz mundu mailan, eta euren bizimoduaren erakusleihu da. *"Mundura zabalik dagoen etxea da, harrera-lekua, bidaiariek geure filosofian eta zereginetan parte hartzen dabe, geure euskal kultura ezagutzen dabe eta Ama Lurragaz komunikatzen ikasten dabe"*.

40 urte dira bost lagunen bizi-proiektu hau hasi zanetik, belaunaldien arteko

erreleboa bilatzeko unea da, eta zeregin hori ez da erraza izaten ari. *"Nonork gura badau, kide barriak sartzeko aukerari zabalik gagoz, proiektu horren jarraipena bizitzarako eta gizarterako ona dala uste dogulako"*. **LUM**



Eguneroko keinu txikiekin, energia aurreztu dezakegu



ENERGIAREN EUSKAL ERAKUNDEA ENTE VASCO DE LA ENERGÍA **E** EUSKO JAHLARITZA GOBIERNO VASCO www.eve.eus



% 100 URA GARA

Bizkaia etorkizunera egokituta zainduz, inbertituz eta mantenduz.



Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia
www.consorciodedaguas.eus

Abeltzaintza estentsiboa eta mendi publikoen kudeaketa indartzeko laguntzak

Larren aprobetxamenduaren kudeaketa egokia ziurtatzeko, iraunkortasuna sustatzeko eta asoziazionismoa indartzeko, Bizkaiko Foru Aldundiak dirulaguntza-lerro bat onartu dau lurraldeko titulartasun publikoko mendietan kokatutako larreak alkarregaz kudeatzen eta aprobetxatzen dabezen abeltzainen alkarreentzat. Mendiko larreetako abeltzaintza estentsiboa garrantzitsua da, behi-, zaldi- eta ardi-aziendak larratuz mendi-bazkalekuak kontserbatzeak ekosistema jasangarriaren alde egiten dauelako eta landa-eremuen kohesio sozial eta ekonomikoa hobetzen dauelako. **UM**



Urdaibaik eusten deutsu turismo erakarmenari

36.000 bisitari baino gehiago izan ziran eskualdeko 3 turismo-bulegoetatik uztailan eta abuztuan, hau da, % 3,8ko igoera izan da aurreko urtearen aldean. Gernika-Lumoko turismo bulegoa izan da eskualdeko bisitatuena 16.229 personagaz, ondoren Bermeo 12.897 personagaz eta Mundaka 6.978 personagaz. Urdaibai helmuga erakargarria da, eta bertoko eragile publikoek eta pribatuek bisitatzeko diran espazioak errespetatzen dauzen turismo iraunkorra bultzatzen dabe. Bestalde, Urremendi, Busturialdeko Landa Garpenerako Alkartea, zinema eta turismo jasangarria uztartzen dauzen 'Terres Travel Festival-Films & Creativity' jaialdian saritu dabe, 'Buelatutako zara' kanpaina turistikoagaitik. **UM**

Guggenheim Urdaibai proiektuaren aurkako manifestazioa

Urriaren 19an Guggenheim Urdaibai Stop plataformak deitutako martxa Gernika-Lumoko kaleetan zehar ibili zan, "Busturialdearen Etorrizunaren defentsan" lelopean. Martxaren hasieran, plataformako ordezkariak adierazi eben proiektuak ez deusela erantzuten eskualdeak daukozen beharrei, eta zerotik hasteko eta diagnostikoa herritarren eretxia eta parte-hartzea kontuan hartuta egiteko eskatu eben. **UM**

Hondakinak kudeatzeko Plan Integral barria

Bizkaiko hondakinak 2030. urtera arte kudeatzeko ibilbide-orrria da. Hondakinen berrerabilpena eta birziklapena edo balorizazio materiala lehenestea da honen helburua beste edozein tratamendu motaren ganetik. Hondakinen sorrerea % 15 murriztea eta sortzen diran 5 kilotatik 4,9 berreskuratzea dira ezarritako neurriak. Plan hau Bizkaiko Batzar Nagusietako Ingurune Naturala eta Nekazaritza Sustatzeko batzordeak onartu dau, eta 6 aldaketa jaso dauz, taldeek aurkeztutako 14 zuzenketa-eske partzialetatik. Hondakinen Plan Integralaren helburua Bizkaia hondakinen prebentzinoan eta kudeaketan erreferentziazko puntu bihurtzea da. **UM**



4,9 Milloi baserriarren bizi-baldintzak hobetzeko

"Suspertze plana" Bizkaiko Foru Aldundiak, lehen sektoreko alkarreentzat, nekazaritza-sindikatuak eta LORRA kudeaketa-zentroak alkarlanean diseinutako plana da, baserriarren errenta-garritasuna eta bizi-baldintzak hobetzeko helburuagaz. Guztira, 4,9 milioi euroko inbersinoa egingo da urtean, besteak beste, honako hauetarako erabiliko da: sektorea modernizatzeko eta digitalizatzeko; belaunaldien arteko erreleborako estrategia barria; hobariak ur-tarifetan; forfait fiskala % 70ean finkatzea; animalien osasuna hobetzea; emakume baserriarren bizi-kalitatea hobetzeko neurriak; oporraldiak luzatzea, geure baserriarren atsedena errazteko eta prozedura guztiak berrikusiko dira, administrazio-izapideak sinplifikatzeko. **UM**



Gernika-Lumoko tren geltokia osorik erabarritzea

Gernika-Lumoko geltokia osorik hobetzeko obrek aurrera jarraitzen dabe. Obrarik handiena atari barri bat eraikitzea eta nasen arteko trenbide-pasagunea kentzea da. Horretarako, trenbidearen eta dagozkion igongailu egokituak eta eskailera finkoen gaintik pasabide bat eraikiko da. Bidaiariarentzako areto barria Bermeorako nasan egongo da, herrigunearen aldean eta ia autobus-geltokiaren ondoan. 2010ean, Monumentu Multzo kategoriagaz Kultura Ondasun izendatutako geltokiaren eraikin historikoaren inguruan dagoen egungo baliogabetze-lerroa babesteko markesina desmuntatu egingo da. **UM**



Busturialdeako garraio publikoa hobetzeko konpromisoa

Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkurak 2025eko aurrekontuetan Busturialdean eta Enkarterrin, garraio zerbitzuan gabezia handienak dituzten eskualdeetan, Bizkaibusen ordu-tegi eta maiztasun aldaketak babesteko partida barriak sartzeko ebazpena onartu dau. Busturialdeko eskualdeko udalerrien aldarrikapena da garraio publikoa hobetzea. 2025eko martxoan, Bizkaibusen eskatu ahalako garraio-zerbitzu pilotua jarriko da martxan. Hiru linea izango dauz eta zerbitzua herri hauetan eskeintuko da: Elantxobe, Ibarrangelu, Ea, Gautegiz Arteaga, Ereño, Kortezubi, Nabarniz, Arratzu, Ajangiz, Mendata eta Sukarrieta. Horretarako, tamaina txikiko 20 autobus inguru erabiliko dira, 15 plaza inguruok. **UM**

Busturialdeak bere udal zerbitzu publikoak diagnostikatu egiten dauz

"Herri Txiki, Aukera Handi" foru proiektua lanean hasi da Busturialdean. Udalerrien beharrezane erantzuteko sortutako ekimena da eta, alkarlanean, zerbitzu publikoen eskaintza bera izan daiezan laguntzeko. Programaren lehen fase honetan, lehenetsunak ezartzea da helburua, udal-zerbitzu publikoak eta erronkak identifikatu eta baloratu eta, azkenik, ekintza-plan bat martxan jarri. Hainbat arloka lotutako erronkak identifikatu dira: administrazioa, enpresa, kultura, kirola, etxebizitza, mobikortasuna eta garraioa, ingurumena eta gizarte-zerbitzuak. **UM**

E EGUREN

ÓPTICA

CENTRO AUDITIVO

GERNIKA-LUMO
Domingo Bernaola, 1
94 625 03 23 / 94 625 04 51



ARROLAKO OPPIDUM-AREN INTERPRETAZIO ZENTROA

IGANDE GUZTIETAN
TODOS LOS DOMINGOS
10:00-14:00
ARRATZU

SUSTABIZ

gure kirolak eta kultura diren herri kirolak sustatuz

GRIPEAREKIN ETA COVIDAREKIN APUSTURIK EZ JARRI TXERTOIA



**GRIPEAREN ETA COVIDAREN
AURKAKO 2024KO TXERTAKETA-KANPAINA**

Bereziki arrisku-taldeetan bazaude
edo 60 urtetik gorakoa bazara



**Goi-mailako
elikagaiak**
Alimentos de
calidad superior

Animalien ongizatea sustatzen dugu Promovemos el bienestar animal

Eusko Labelen **ANIMALIEN ONGIZATEA** sustatzen dugu, bizi-baldintzak hobetuz eta gure produktuen kalitatea bermatuz.

En Eusko Label **promovemos el BIENESTAR ANIMAL**, mejorando sus condiciones de vida y garantizando la calidad de nuestros productos.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

ELIKADURA, LANDA GARAPEN,
NEKAZARITZA ETA
ARRANTZA SAILA

DEPARTAMENTO DE ALIMENTACIÓN,
DESARROLLO RURAL,
AGRICULTURA Y PESCA

euskolabel.hazi.eus





bizkaia.eus/eu/oma-basoa
Erreserba egin Reserva tu visita



Oma Basoa

El Bosque de Oma

Agustín Ibarrolak sortutako obra
Obra creada por Agustín Ibarrola
© Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia